



## IV. Aiztondo Klasikoa Asteasun hasi eta Zizurkil Goian bukatuko da

**TXIRRINDULARITZA** ▶ Gipuzkoako eta Euskadiko federazioen arteko istiluak direla-eta ez antolatzekotan izan bazen ere, etzi egingo dute ▶ 5

TOLOSA ▶

### Inauterien onena «garbiketa eta garraioa»

Herritarrek balorazio orokorra egin dute udal ordezkariekin ▶ 3

### Desordutan taldearen lehenengo lana aurki izango da kalean

**TOLOSALDEA** ▶ «Jarrera errebeldea ezin da alboan utzi», diote taldeko Ezkerrak, Aranburuk, Karrerak eta Otamendik ▶ 2

TOLOSA ▶

### Udaberri dantzari taldearen 50 urteei buruzko erakusketa

Etzi arte izango da ikusgai Tolosako Kultur Etxean; argazkiak eta dantza osagarriak ikus daitezke, esaterako ▶ 6



L. ASENSIO

ANOETA ▶

### Euskara sustatuko dute enpresetan Udalak eta Galtzaundik

Ikastola eta Udala «pozik» daude euskararen erabilera datuekin ▶ 4



Fidel Azpiroz Anoetako alkatea eta Jon Ander Ubeda Galtzaundiko zuzendaritzaren kidea, sinaketaren unean. I. GARCIA

VILLABONA ▶

### Ertzain baten etxebizitza erasotu dute ▶ 4

EGOITZ EZKERRA, JOSEBA ARANBURU, IÑIGO KARRERA ETA GORKA OTAMENDI ▶ DESORDUTAN TALDEKO PARTAIDEAK



I.ASENSIO

## «Jarrera errebeldea ezin da alboan utzi, konformismoa gainditu behar da»

Abenduan Bonberenean grabatzen aritu eta nahasketak eta diseinua amaitu ostean, datorren asterako izango da kalean Desordutan taldearen lehen lana

### IÑIGO ASENSIO

Bi urte dira talde tolosar hau martxan jarri zela. Hasiera batean formatu akustikoan jarri ziren lanean, Joseba Aranbururen Txus (Tolosa, 1980) abestiei itxura ematen eta ondoren Egoitz Ezkerra (Ibarra, 1984) gitar-jolearen sarreratik «pop-rock ozenago» batera hurbiltzen joan dira. Musika munduan oso esparru zabalean ibilitakoak dira euren aurreko esperientzietan, Waika taldeetik abiatu eta musika bandara iritsiz, bidean erromeria eta ezkontza taldeak edota akordeoi orkestra utzita. Beraien musikaz eta kaleratuko duten lanari buruz aritu dira solasean Desordutan taldeko Joseba Aranburu, Egoitz Ezkerra, Gorka Otamendi (Tolosa, 1984) eta Iñigo Karrera (Tolosa, 1980).

**Musikaren inguruko hainbat esparru ezberdinetan ibilitakoak zarete lauk; zein ekarpen egiten dio horrek zuen pop-rock inguruko proiektu honi?**

**Joseba Aranburu.** Zaila da hori oraindik jakitea, denborarekin konturatzen joango gara. Talde baina berria gara estilo honetan hasi garbi daukagu badugula zer eskaini. Grabazio

honetan haizeak sartu ditugu hiru abestitan betiko moldetik ateratzeko. Oraindik gure nortasunaren bila gabiltza.

**Nolz eta zergatik sortu zen maketa grabatzeko intentsioa?**

**Iñigo Karrera.** Gure helburua hasieratik zuzenean jotzea izan da, eta horregatik gure musika aurkezteko grabazio bat behar genuela pentsatu genuen. Egitaraua landuta zegoen, grabaketak horren islada izatea nahi genuen eta behin lan hori eginda aurrera jarraitu. Lokalean bertan grabatzea ere bururatu zitzaigun baina Bonberenean atek ireki zizkigun eta benetan ohorea izan da haiekin grabatzeko aukera izatea. Harreman ona izan dugu aspaldidanik eta orain proiektu hau gauzatzen lagundu izana eskertzekoa da oso.

**Bost egun igaro zenituzten grabatzen. Zer nolako esperientzia izan zen?**

**Egoitz Ezkerra.** Ez da esperientzia musikala bakarrik izan, elkarbizitza izan da gure artean eta baita parte hartu duten kolaboratzaileekin eta Bonbereneako jendearekin ere. Bonberenearekiko lotura asko handitu da; oso garrantzitsua izan da Desordutanentzat.



Gorka Otamendi Bonbereneako estudioan batera grabatzen. HITZA

**Eta musikalki zer nolakoa izan da esperientzia?**

**Gorka Otamendi.** Gustura gaude egindako lanarekin eta bertan izandako baliabideekin. Bonberenean grabatzen oso aske sentitu gara. Gero nahasketetan joan zaizkigu hainbat aste. Proiektua ez baita estudioan amaitzen. Diseinua, produktzioa... Maketak proiektu bat izaten jarraitzen du, nahiz eta amaierara iristen ari den.

**Zeintzuk dira taldearen eragin estilistikoak?**

**G.O.** Pop-rockaren influentzia jaso dugu orokorroean, eta modu zabalean; ezingo nioke izenik jarri.

**E.E.** Ez dut uste talde bati bere-

ziki erreparatzen diogunik. Bakoitzak bere influentziak ditu; bat egiten dute nahi gabe.

**J.A.** Abesti batekin lanean hasten garenean ez dakigu swing-etik edo rock-etik gertuago amaituko dugun. Amaieran gauzek itxura bat dute baina zerbaiten bila ibili garena baino zerbaitekin topo egiten dugula esan genezake.

**I.K.** Garbi dago gure soinua ez dela kasualitate hutsa, esan dugun bezala bakoitzak berera egiten du eta horrek aberasten du taldea.

**Topo-egite horren ondorioa izan bada ere, noruntz joan da Desordutan lehen estudioko lan honetan?**

### GRABAZIOA

«Gustura gaude egindako lanarekin, Bonberenean grabatzen oso aske sentitu gara»

### ESTILOA

«Ez dugu estilo zehatzik, bakoitzak berera jotzen du eta horrek aberasten du taldea»

### SUSTAPENA

«Lan hau gure musika zabaltzeko egin dugu: tabernetan, irraturan, lehiaketetan... jendea ezagutzen joan dadin»

**J.A.** Nahi gabe bada ere, gertuago dugunera jo dugula esan daiteke. Gure lau instrumentuak oinarria izanik, haizeko instrumentuen kolorea aprobetxatzen saiatu gara. Musika elektronikoruntz abiatzeko ez genuke nondik hasi ere izango, baina haizeko instrumentuen inguruan badakigu zerbait; hauen inguruko lagun musikari asko ditugu gainera. Beraiek ere lan bikaina egin dute grabaketan.

**Zertaz mintzo da Desordutan?**

**J.A.** Hitzak zentzu batekin idazten dira baina bakoitzak bere interpretazioa egitea nahiko genuke. Ez dago ezer inoiz esan ez denik, gero entzulea gure epaiketekin ados egon daiteke ala ez, baina bakoitzaren interpretazioa da garrantzia duena. Azkenean betiko gaiak dira, baina gureak eginda; gure modura ulertuta.

**Dagoeneko maketa la maitu duzue, zer egingo duzue berarekin?**

**I.K.** Autoprodukzioan aritu gara lanean maketa honetan. Egin duguna gure musika zabaltzeko egin dugu. Tabernetan, irraturan, lehiaketetan... Jendea gure musika ezagutzen joan dadin.

**Desordutan izenak jarrera errebelde xamarra erakusten du; zuen musikan ere bereizten al da jarrera hori?**

**J.A.** Bai noski. Jarrera errebelde hori ezin da alboan utzi. Gazteak gara, dohai hori daukagu eta aprobetxatu egin behar da. Pop lasaia egiteak ez du esan nahi irizpiderik ez dugunik. Alde hortatik desadostasunik daukagun bitartean horri helduko diogu. Konformismoa alde batera utzi behar da.

GIZARTEA ▶

# Garraio zerbitzua eta garbitzaileen lana goraipatu dituzte

Inauteriak amaitu eta aste bete beranduago, hauen inguruko balorazioa egiteko bildu ziren herenegun tolosarrak

ESTI EZEIZA

Aste bete igaro da jada Inauteriak amaitu zirenetik, eta orain atzera begiratu eta balorazioak egiteko garaia da. Asmo horrekin bildu ziren herenegun iluntzean Kultur Etxean Udaleko, konpartsetako, txarantgetako, aisi taldeetako eta beste hainbat taldeetako ordezkariak. Denera, 174 konpartsa izan dira aurten, eta beste 13 karroza. Horiez gain, 1.000 haur baino gehiagok hartu zuten parte aisialdi taldeetako emanaldietan.

Puntuz puntu, Inauterietako osagai izan diren ekitaldien inguruko iritzia eman zuten herenegun Kultur Etxean bildu zirenek, zein huts egite egon ziren azalduz, kekek aurkeztuz eta datorren urterako proposamenak mahairatuz. Dena den, bertan bildu zirenek argi utzi zuten, «Inauteriak jai egiteko eta festarako egunak direla, eta zaila dela gauza guztiak kontrolpean izatea, eta jendeari arauak betearaztea».

Ekitaldiaren amaizteko, eskerrak emateko garaia iritsi zen. Hala, garbitzaileen lana eta egun guzti horietako autobus nahiz tren zerbitzua txalotu zituzten.

Karroza eta konpartsei dagokionean, «ohikoa» den arazoa izan zen, ez ziela denbora eman talde guztiei ibilbidea egiteko. Horren arrazoietako bat, «karrozek geldialdi luzegiak egiten zituela izan zen». Irtenbide gisa, lehenagotik atez-



Lan handia egin zuten txarantgetako herria alaitzen. E. EZEIZA

ratzea edo denak batera ateratzea proposatu zuten. Beste aukeretakoa bat, karroza denbora guztian toki berean egotea izango litzatekeela esan zuenik ere izan zen. Gai honen inguruan aurkeztu zen xeketako bat, ferialekuan izandako triskantzena izan ziren. Igande eta astelehen bitartean, zenbaitek, eraikinean zeuden konpartsa eta karrozetan kalteak eragin baitzituzten. Dena den, errudunak harrapatu zituzten, eta hauek zigortuak izan dira. Bestalde, Udaleko ordezkariak jakitera eman zuten, «eraikina zaintzeko pertsona bat bada, baina zaila da jendearen sartu-irten guztiak kontrolatzea».

Herritarretako batzuk, txarantgetako lana goraipatu, gauean beste bat gehiago jarri beharko litzatekeela esan zuten. «Plaza Berrian, kontzertua beharrez txarantgeta bat aritu beharko luke» azaldu zuten. Hala ere, beste askoren iritziz, «kanpotik datorren jendeak ez dio jaramon gehiegirik egiten txarantgetari, eta aurten bezala, datorrenetan ere, gauek, bakarrekin nahikoa da».

Inauteriek bezain beste tradizio dute Tolosan kaldererok. Hala, batzuen ustez, jendea egun honetako kantuek ahazten ari da. Horregatik, hau ez gertatzeko zerbait egin beharra zegoela proposatu zuten herenegun herritarrek.

PING-PONG ▶

# 150 jokalaririk aritu ziren Euskadiko Txapelketan

Gipuzkoarrak nabarmen nagusitu ziren, 61 dominetatik 42 eskuratu baitzituzten



150 jokalaririk aritu ziren lehian Euskadiko Txapelketan. HITZA

E. EZEIZA

Euskadiko Ping-pongeko 13. Txapelketa jokatu zuten asteburuan Usabal kiroldegian. Denera 16 mahai ipini zituzten kiroldegian, eta adin nahiz maila guztietako 150 jokalaririk hartu zuten parte norgehiagoketan. Larunbat goizean hasi eta igande eguerdira arte jokatu ziren partidak. Eskualdeko partaidetzari dagokionez Villabonako Olaederra kirol elkarteak izan ziren eskualdearen ordezkari, eta aldi berean, txapelketaren antolatzaile.

Lau modalitate ezberdinetan aritu ziren parte-hartzaileak: taldeka, banaka, binaka eta bikote mistoetan. Larunbat goizean taldekako partidak jokatu ziren, eta arratsaldean binakakoak. Olaederrako jokalariek modalitate hauetan, infantiletako zilarrezko domina eta jubentiletako brontzezkoa eskuratu zituzten.

Binakakoetan nabarmen nagusitu ziren gipuzkoarrak,

lau urre, lau zilar, eta bi brontzerekin. Horietako bat Iker Mugerza tolosarrak irabazi zuen.

Txapelketako saiorik garrantzitsuenak igandean jokatu ziren, non banakakoetan Gipuzkoarrak nagusitu ziren nabarmenki. Izan ere, jokoan zeuden 24 dominetatik 17 bertan geratu ziren. Azken emaitzei dagokionez, gipuzkoarrek 42 domina eskuratu zituzten, arabarrek 16 eta bizkaitarrek 3. Bestalde Iker Martinez irundarrak irabazi zuen banakako Euskadiko Txapelketa sari nagusia.

Jon caminos, Raul Lopez, Javi Villar eta Mikel Goya tolosarrek ere hartu zuten parte ping-pongeko txapelketan, baina lehen aipatu bezala, Iker Mugerza izan zen domina eskuratzea lortu zuen bakarra. Infantiletan, hau da, bere mailan, finalera iristea lortu baitzuten, azkenik, zilarrezko domina erdietsiz. Eta honez gain, maila altuagoan, jubentiletan, brontzezko domina eraman zuen.



Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40  
1. solairua • 7. bulegoa  
20400 TOLOSA  
Tel./faxa: 943 65 55 87  
Sakelakoa: 669 368 994

Oharra: Asteazkenean argitaratutako Basabiko testua ez zen zuzena.

**Amasa.** 124m2ko bi etxebizitza. Egoera oso onean. Altzairu eta guzti.  
**Anoeta.** Harrizko eraikuntzan etxebizitza. Erreformatzeko. 90m2.  
**Alegia.** Eraikuntza berriko pabilioiak. Azken moduluak. 350m2tik hasita.  
**Belauntza.** Pabilioia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.  
**Berrobi.** Behe solairuko etxebizitza. 50 m2koa. 117.200 euro.  
**Berrobi.** Laugarren solairuan etxebizitza salgai. Berritua.  
**Irura.** San Migel plaza. Atikoa. 76 m2 erabilgarriak.

**Berastegi.** Bi solairuko pabilioia alokairuan, 700 m2 solairu bakoitzeko.  
**Irura.** Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugelak, altzariekin, garajea eta trastelekua duen etxebizitza.  
**Irura.** Eraikuntza berriko etxebizitza salgai Laskibar inguruan. Garajea eta trastelekuarekin.  
**Tolosa.** San Esteban auzunean, kanpora begirako 100 m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.  
**Tolosa.** San Frantziskon

apartamentu altua. Logela bakarra.  
**Guztia eraberritua.** Ikuspegi ederrak.  
**Tolosa.** Ugarran Goenan, baserria berritu beharrekoa. 3 solairuko.  
**Tolosa.** San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberritzeko.  
**Tolosa.** Pablo Gorosabel. 50 m2ko bulegoa alokairuan.  
**Tolosa.** San Frantziskon etxebizitza salgai. 90 m2-koa, eraberritua, oso eguzkitsua.  
**Tolosa.** Agintari kalea. Bi logelatako etxebizitza. Egongela, sukalde eta komunarekin.

**Tolosa.** Maituna zaharra. 12 garaje berri eta itxiak, 30m2tik aurrera. Karga jasogailuekin sartzeko.  
**Eraikitze.**  
**Tolosa.** 89 m2ko etxebizitza salgai Zabalarretan. Bi logela, garaje eta trastelekuarekin.  
**Tolosa.** Santa klaran, etxebizitza salgai, atzealdean lur sailarekin.  
**Tolosa.** Zumalakarregi kalean 160 m2-ko etxebizitza salgai. Egoera oso onean.  
**Tolosa.** Lebuga kalean eraberritutako atikoa.

ANOETA ▶ EUSKARA

# Enpresetan euskara sustatuko dute Udalak eta Galtzaundik

Hartzen dituzten konpromisoak aurrera eramaten lagunduko diete eragileei

IMANOL GARCIA

Anoetako Udalak eta Galtzaundi Euskara Taldeak hitzarmena sinatu dute, elkarlanean aurretik enpresa munduan euskararen erabilerearen normalizazio lanak bideratzeko. Akordioaren sinaketa Fidel Azpiroz alkateak eta Jon Ander Ubeda Galtzaundiko zuzendaritzaren kideak egin dute.

Hitzarmenean zehazten den bezala, Galtzaundik herriko enpresa munduko eragileei bisita egingo die, akordioaren bi sinatzaileek eragile horiek zeintzu diren erabaki ondoren. Bisitatutako eragileei euren enpresetako euskararen erabilera sustatuko duten konpromisoak edo planak bideratzeko eta Bai Euskarari Ziurta-



Fidel Azpiroz eta Jon Ander Ubeda, atzo, sinaketaren une batean. i.g.

giria lortzeko aukerak eskainiko dizkio. Eragileek harturiko konpromisoak aurrera eramateko laguntza eskainiko dio es-

kualdeko euskara taldeak, artean itzulpen zerbitzua ere. Azkenik, eragileei diagnostiko txiki bat egingo die, oinarritzko

datu bilketa baten bidez. Jarraian guzti horretarako 1.350 euro emango dizkio Udalak Galtzaundiri.

## Hiru bilera

Bere aldetik, Udalak Galtzaundiri behar duen babes eta laguntza tekniko guztia emateko konpromisoa hartu du, bere lana egoki burutu ahal izateko. Hitzarmen horretan zehazten diren lanek sor dezaketen jarraipen lanak hurrengo hitzarmenetan zehaztuko dituzte, bi aldeek horrela baderitzote.

Sinatzaileen artean hiru bilera egingo dituzte. Bata, hasi aurretik, burutu behar diren lanak zehazteko. Bigarrena, jarraipena egiteko eta, azkenik, lanaren emaitzak baloratzeko.

## Udala eta Ikastola pozik euskararen erabilera datuekin



Manuel Odriozola, Fidel Azpiroz, Dani Maiza eta Idoia Olanoa. I. GARCIA

Anoetako Udalak eta Anoeta Herri Ikastolak balorazioa egin dute euskararen erabilerearen datuei buruz. Biak pozik agertu dira neurketak emanako emaitzekin. Gogoratu 2006ko azaroan neurturiko euskararen erabilpenaren indizea %69koa dela eta beraz 2001ko neurketarekin alderatuz, bederatzita puntu igo dela bost urte horietan.

Fidel Azpiroz alkateak azaldu duenez, Udalak estrategikotzat jotzen ditu haur eta gazteen adin segmentuak, «etorkizunera begira euskararen erabilera ziurtatzen dutelako». Bi adin tarte horietako datuak indize orokorraren gainetik kokatzen dira. Udalak, alor horretan, bi ondorio atera ditu. Alde batetik, «haurrek, gazte bihurtzen direnean, euskara erabiltzen jarraitzen dutela». Egoera hori «esanguratsutzat eta positibotzat» hartzen du Udalak. Beste ondorioa, «euskararen erabilpena etorkizuneari ziurtatu daitekeela» da. «Erakunde eta udal askorentzat lortu nahi den normalizazioa prozesua Anoetan bermatua dagoela esan daiteke», gaineratzen du Udalak.

Beste ondorioetako bat ezagutza eta erabilerearen arteko erlazioaren inguruan atera du Udalak. Ezagutza %73,4koa izanik, adituen arabera neurturiko erabilera indizea normalagoa baino altuagoa da. Horrela, «Anoetan, beste lekuetan ez bezala, euskara jakiteak euskara erabiltzea dakar».

Bere aldetik, Dani Maiza Ikastolako zuzendariak, Ikastolaren zereginetako bat «herriko zein ondoko herrietako ikasleen heziketa euskaldunaren sendotzea» dela adierazi du. Gazteen artean neurturiko erabilera datua meritutzat jotzen du. Bestalde, orain arteko ibilbidearen emaitzei eusteko beste eragile laguntza eskatu zuen.

Manuel Odriozola Alkartasuna jubilatuen biltokiko lehendakariak, bere aldetik, elkarrean «euskararen erabilera sustatzen» saiatzen direla azaldu zuen. Balorazioen aurkezpenaren ere Idoia Olanoa euskara teknikaria izan zen. ◀

## iragarki laburrak ▶

**LANA**  
Gidariak. Erakunde publikoetarako.  
943 44 48 66.

**Garbitzaileak eta sukaldariak.**  
Jangeletarako, eskolak.  
943 44 48 66.

VILLABONA ▶

## Ertzain baten etxebizitzan kalteak eragin dituzte

Ertzaintzak «Bilbon agertutako jarrera» dela-eta egin dute ustezko erasotzaileek

ERREDAKZIOA

Larunbat gauean ezezagun batzuk ertzain baten etxebizitza erasotu zuten Villabonan. Herrizaingo Sailak adierazi duenez, margo poteak jaurtiki zituzten fatxadara eta azpian zegoen auto batek ere kalteak jaso zituen. Horrez gain, harri batekin ezkaratzeko atearan kristala apurtu zuten.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAN jasotako telefono dei baten bidez, Ertzaintzak «prozesuan zehar duen jarraitutako Bilbon agertutako jarreragatik» egin dute dela eraso azaldu dute ustezko erasotzaileek. Horrez gain, Ertzaintza «erasoa isilarazten saiatu dela» azaldu zuten.

ANOETA ▶

## Ezker abertzaleak batzarra egingo du bihar

Anoetako ezker abertzaleak batzarra burutuko du bihar eta udal hauteskundeak izango da gairik garrantzitsuenaren. Bilera udaletxean egingo dute, 10:30ean. Egungo egoerari buruz hitz egin ondoren hauteskundearen gaian bi puntu jorratuko dituzte: herri proposamena eta zerrenda. Anoetako ezkeriar eta abertzale orori deialdia luzatzen diete batzar horretan parte hartzera.

VILLABONA ▶

## Behar-Zanakoen partida izango da bihar Amasan

Behar-Zana elkarteko Aranburu eta Txapartegik Azpeitiko Ilunpe taldearen aurka jokatuko dute bihar 16:15ean, Amasako Udal Pilotalekuan. Udaberri Txapelketako senior mailako eskuz binakako partida izango da.



Pertsonak hezte  
eta osatze  
gure erronka

JESUSEN BIHOTZA  
IKASTOLA

— 2-16 urte bitarteko hezkuntza —  
Villabona eta Zizurkilgo ikastola

- Euskalduna eta eleanitza • Kalitatezko Hezkuntza
- Esperientziaduna

943 69 23 21 (Berria, 49 • Villabona)  
943 69 20 58 (Txermin auzoa • Villabona)  
943 69 12 75 (Elbarrena auzoa • Zizurkil)

billabona@ikastola.net

TXIRRINDULARITZA ▶

# IV. Aiztondo Klasikoan, txirrindulariak eta istiluak

Euskadiko eta Gipuzkoako federazioen artean gutxiengo akordioetara iritsi dira



Mikel Nievek lehenengo urtean laugarren egin zuen. Aurten ere ariko da. IMANOL OTEGI/A.P.

## NEREA URBIZU

Etzi, igandean, IV. Aiztondo Klasikoa izango da gurean, 140 kilometro inguru dituen afizionatuen mailakoa proba, hain zuzen ere. Aurtengoak 143,4 kilometrokoa izango da eta Asteasun hasiko da. Helmuga, berriz, Zizurkil Goian izango du. Espainiako Koparako balioagria den proba honetan 189 txirrindularik hartuko dute parte: «27 taldeko txirrindulariak izango dira, eta bakoitzetik 7 lasterkari etorriko dira», argitu zuen Joxe Ramon Aierza antolatzaileak.

10:00etan aterako dira Asteasutik eta Tolosara jaitsiko dira. Ordiziara iritsi arte. Berriz bide berdina egingo dute: Itsasondo, Legorreta, Ikaztegieta, Alegia, Tolosa eta berriz Asteasura helduko dira. Lau bira egingo dituzte Villabonan daudenean: Villabona, Asteasu, Zizurkil, Aduna eta berriz Villabona. Azkeneko bueltan Villabonatik Asteasura eta Zizurkilera igoko dira. Han, helmuga izango da.

Talde euskaldunak hauek izango dira: Baque, Caja Rural, Bruesa, Deba Barrena, Seguros Bilbao eta Bidelan. Hauetan eskualdeko hainbat txirrindulari daude parte hartzen, besteen artean, Mikel Nieve leitzarra, Caja Ruraleko txirrindularia eta iazko lasterketan

laugarren egin zuena. Baina, «larunbatera arte dago txirrindularien izena emateko epea, eta ez dugu zerranda osoa».

## Federazioarekin arazoak


Aste osoan zehar asko hitz egingen ari da txirrindularitzaz. Alde batetik, Euskadiko Federazioaren eta herrialdeetako en ikuspuntuak ezberdinak zirela-eta izandako ezadostasunak; bestetik, epaileekin loturiko gaiak. Baina, azkenik, Euskadiko egutegia eta arautegia, egindako bileren ondorioz, ia guztiz onartu egin dute.

Araza handienak kadeteekin eta jubenilekin izan dira: Euskadiko Federazioak oztupoak jarri ditu hauek aurrera eramateko, eta honen aurrean, Asteasuko Aiztondo Klasikoa ia aurten ere bertan behera geratzeko zorian egon da, bi kategoria hauekin bat egin nahi izan duelako. Azkenik, Iñaki Iglesias Vascako lehendakariarekin akordio batera iritsi dira eta etziko proba egingo da.

«Aiztondo Probak ez du zuzenean arazorik izan Euskadiko Federazioarekin»; izan ere, «Asteasuko probak Espainiako Koparako balio du eta Espainiako egutegiaren barne dago». Baina Euskadiko Federazioak, Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko federazioekin arazoak edo ezadostasunak izan

nik, txirrindulariek eta antolatzaileok ez dugu ordaindu behar», gogoratu du Aierzak. Araza hauengatik, Urretxuko, Soraluze, Errenteria eta Ibaeta-ko lasterketak ez ziren burutu.

«Badirudu adostasunetara iritsi direla: estatutuak onartu egin ziren herenegun egindako bileran, eta hurrengo asteartean, berriz, egutegiaren gaineko gaiak onartzeko bilduko dira. «Arazoek hartu duten bidea ikusita, ematen du azkenen adostasun batera iritsiko direla asteartean ere».



**Salgai (Tolosa)** lurrarendi auzoan etxe zoragarria. 2 solairu. 5 logela. Aparta. Sartzeko moduan. Lorategia. Garaje itxia.

**Salgai (Tolosa)** Santa Klaran pisu eraberritu. Kanpoalderra. 2 logela. Sukalde osatua eta oso polita. Ikuspegi apartak. Sartzeko prest.

**Salgai (Añoeta)** Pisu leku apartean. 3 logela, sukalde osatu eta ederra. Kanpoalderra. Terraza galanta eta eguzkitua. Sartzeko prest.

**Salgai (Tolosa)** Agintari kalean 1. go pisua. Oso polita. Estreinatzeko guztiz eraberritu osten. Kalitate handiko materialekin egina. Eskarata eta eskailera eraberrituak.

943 69 71 96 • 675 705 268  
Korreo Kalea 50

## LASTERKETA ▶

**Proba.** Asteasuko IV. Aiztondo Klasikoa.  
**Kategoria.** Afizionatuak.  
**Eguna.** Martxoak 4.  
**Ordua.** 10:00etan.  
**Hasiera.** Asteasun.  
**Helmuga.** Zizurkil Goian, 13:30ak aldera.  
**Kilometro kopurua.** 143,400 kilometro.

Gipuzkoako Federazioak «ez ditu Euskadiko Federazioak estatutu berriak onartu nahi izan» eta horregatik, Iñaki Iglesiasek gaineratu zuen, «Euskadiko Federazioak estatuturik gabe lanean aritzeko aukerarik gabe» geratzen dela.

## Udalen laguntza

Aiztondo Klasiko Batzordea Asteasuko Aiztondo, Villabonako Irrintzi, Zizurkilgo Urkamendi eta Adunako Txulobi elkarreke osatzen dute. Bestalde, Aierzak Asteasu, Alkiza, Larraul, Villabona, Zizurkil eta Adunako udalei eskerrak eman dizkie, «lasterketa hau egin ahal izateko euren laguntza ezinbestekoa baita».

## ALEGIA ▶

### Festa batzordearen lehen bilera

Alegiko Kultur Etxean datorren asteartean, 19:00etan, festa batzordea bilduko da. Bertan herriko festak prestatzen hasteko lehen pausak ematen hasiko dira. Festa onak izan daitezten, herritar guztiak daude gonbidatuta.

## PILOTA ▶

### Ibarran, Aurrera-Saiazen bi norgehiagoka

Aurrera-Saiazek gaur bi norgehiagoka izango ditu Uda-berri Txapelketaren baitan Ibarran, 20:00etatik aurrera. Arerioak Lazkaoko bikotea eta Ilunpekoa izango dira.

## TOLOSA ▶

### Laskoraingo argazki erakusketarako

2007. urtean Laskorain Ikastolak 40 urte beteko ditu, eta aitzakia horrekin ekintza ezberdinak antolatuko dituzte, besteak beste, argazki erakusketa. Horretarako ikastolatik pasa diren guztien laguntza behar dute, etxean dituzten argazkiak ikastolara ekartzea eskatu dute, «berriz bueltan eramateko, noski».



Koldo Mitxelena Kulturunea  
Urdaneta kalea 9 • 20006 DONOSTIA  
Tel.: 943 11 28 93  
programazioa@gipuzkoa.net  
www.gipuzkoa.net/kultura

## ERAKUSKETAK

### Dokumentuak Etokizunaren Memoria

*The Atlas group/Walid Raad  
Bleda y Rosa  
Luc Delahaye  
Juan Manuel Echavarría  
Jacques Fournel  
Sebastián Friedman  
Brian Mckee  
Ann-Sofi Sidén  
Alec Soth*

Urtarrilaren 25etik martxoaren 24ra

### Suite Erotique

*J. A. Sistiaga*

Urtarrilaren 31tik martxoaren 24ra

**ORDUTEGIA**  
asteartetik larunbatera:  
10:30-14:00 / 16:00-20:30  
astelehen, igande eta jaiegunetan itxita  
Bisitza gidatuak taldeentzat. Tel.: 667 346 025

IRATI HARTSUAGA &gt; UDABERRI DANTZARI TALDEKO KIDEA

## «50 urtetan zehar pasa diren belaunaldi guztien argazkiak jartzen saiatu gara»

ASIER IMAZ

Tolosako Kultur Etxean igandera arte Udaberri Dantzari Taldearen erakusketa egongo da zabalik. Argazki, dantza tresna, oroigarri eta hainbat gauzen bidez, taldearen 50 urteko bizitza jarrai daiteke. Bertan aurkitu dugu Irati Hartsuaga, dantzari jantzi eta guzti.

### Zer nola osatuta dago erakusketa?

Argazkiak dira gehien daudenak. Kronologikoki kokatuak daude gainera, nahiz eta haserako belaunaldien argazki asko ez izan batzuk aurkitu ditugu. Hauekin batera, dantza ezberdinetako tresnak eta urte hauetako oroigarriak ere ikus

daitezke. Azkenik ekitaldien irudiak, prentsa errekorreak eta belaunaldi guztien zerrendak aurkitzen dira; hauek gainera osatu egin nahi ditugu, eta erakusketa horretarako ere aukera polita izan daiteke. **Nolakoak izan ziren Udaberriren lehen urteak?**

Bi apaizek sortu zuten taldea Sakramentinetan. Hasieran mutilak bakarrik zeuden, inguruko herrietatik gerturatutakoak. Urte batzuk pasa ondoren, neskek ere hasi ziren talde misto bilakatu zelarik. Lehen etsegu lokala Sakramentinoetan zegoen, baina apaiz hauek ikusi zuten beraien dantza ezagutza mugatua zela eta Donostiako dantza

talde batekin jarri ziren harremanetan. Ondoren, herriko taldean urte batzuk zeramatzarenak hartu zuten Udaberriren ardura.

### Harremanik ba al duzue hasierako belaunaldiekin?

Bai. Gehiago esango dizut gainera, ekainan denek batera kalejira bat egingo dugu. Gaur egun gaudenok eta Udaberrietik pasatu diren guztien artean. Urte guztirako prestaturik ditugun ekitaldietako bat izango da hori. Dantza taldeak ere ekarriko ditugu antzezpenean bat egiteko; horretaz gain, bertso afaria, musika kontzertu



Erakusketan Irati Hartsuaga, Udaberri dantzari taldeko kidea. A. IMAZ

bat eta amaitzeko, abenduan, Udaberri Dantzari Taldearen antzeppen handi bat Tolosan. Ekitaldi guztiak euskal kulturarekin lotuak joango dira. **Gaur egun zenbat kide zarete?**

Gaur egun 30 inguru gara. 50 urte hauen azken muturra ga-

rela jakin badakigu, baita ere taldeak jarraipena behar duela, horregatik nahiz eta ez gauden momentu onenean, aurrera joan behar dugu. Aurten baditugu ekitaldiren batzuk, adibidez Kataluniarako irteera bat eta airean dagoen Galiziarako beste bat. ◀



Tolosako Kultur Etxean dagoen erakusketak, Udaberri dantzari taldeak bere 50 urteetan zehar erabili dituen hainbat dantza tresna ikusteko aukera eskaintzen dio gerturatzen denari. A. IMAZ



Argazkiak dira nagusi erakusketan. Paneletan bezala argazki albunetan ere aurkitzen dira, azken hauetan bidaia ezberdinetako argazkiak ikus daitezke. A. IMAZ



50 urtetako ibilbidea ikusteko aukera izango du gerturatzen denak. Erakusketa igandera arte izango da zabalik. Gaur eta igandean, 17:30etik 20:30era. Bihar, berriz goizez ere irekita egongo da; 10:00etatik 13:00etara, hain zuzen ere. Arratsaldean ohiko ordutegia izango du, 17:30etik 20:30era. A. I.

# TXOTX

## Arratzain

Arratzain zahar baserria info@agroturismoarratzain.com  
Tel.: 943 366 663 Usurbil

## Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)  
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

## Gartziategi

Gartziategi baserria  
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

## Iparagirre

Osiñaga auzoa  
Tel.: 943 550 328 Hernani

## Urbitate

Ergoiena auzoa  
Tel.: 943 180 119 Ataun

## Gurutzea

Oialume bidea, 63 (sarrera Ergobia auzotik)  
Tel.: 943 552 242 Astigarraga

## Akelenea

Oialume bidea 57  
Tel.: 943 333 333 Astigarraga

## Lizeaga

Gartziategi baserria, Martutene pas. 139  
Tel.: 943 468 290 Astigarraga

## Elutxeta

Oztaran auzoa 34, Elutxeta baserria  
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 Urnieta

## Rezola

Santio Zeharra  
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 Astigarraga

## Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa  
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani

LEITZA ▶ PILOTA

# Herriko pilotari gazteenak Nafar Jokoetan aurrera

Aurreko larunbatean Altzan jokaturiko Berria Txapelketako bigarren kanporaketa irabazi zuten, asko sufritu ondoren



Aurrean ezkerretik eskuinera, Nubla, Lansalot eta Iriarte. Atzean, Sagastibeltza, Iraola eta Jaunarena. HITZA

NAIARA GARZIA

Nafar Jokoak aurrera doaz eta asteburu honetan ere Aurrerako pilotariak izanen dute partidarik etxean nahiz kanpoan.

Bihar, hasteko, Nafar Jokoen barruan, 3 norgehiagoka jokatuko dituzte Aurrerako pilotariak Amazabal pilotalekuan goizeko 10:00etatik aurrera. Oinatz Mariezkurrena eta Iñaki Saralegi, Aralar Mendi taldekoen aurka ariko dira. Baina hauen ez da hasi berrien bigarren mailan jokatuko den partida bakarra, izan ere Markel Barriolak eta Asier Gilek Oberena D taldeko pilotarien aurka jokatuko dute. Azkenik, Anartz Olano eta Mikel Sagastibeltza Egues Zugarralde B taldearen

aurka ariko dira, hasi berrien lehenengo mailaren barruan.

Txapelketa beraren barruan bihar beste 3 izango dira Aurrerako pilotariak kanpoan jokatuko dituzten norgehiagokak: Lizarran, Ibai Gil eta Mikel Sagastibeltza Lasarte Lizarra B taldearen aurka ariko dira, hasi berrien lehenengo mailan; Burlatan, berriz, Iker Sagastibeltzak eta Josu Zabaletak Zugarralde Fren aurka jokatuko dute, hasi berrien hirugarren mailan. Azkenik, Uharteko Arakilen, Ibai Azurmendi eta Julen Goikoetxea Aralar Mendiren aurka ariko dira, hauek ere hasi berrien hirugarren mailan.

Nafarroako Kluben Arteko Txapelketari dagokionez, gaur

Arantzán Mikel Iriartek eta Aimar Lansalotek Ekaitza taldeko pilotarien aurka jokatuko dute, 22 urtetik beherako kategorian. Aurreko astean, txapelketa honen barruan, Paz Ziganaren aurka jokaturiko norgehiagoka Aurrerak irabazi zuten, maila berean.

## Berria Txapelketa

Larunbatean Altzan jokaturiko Berria Txapelketaren bigarren kanporaketa Aurrerak irabazi zuten, eta beraz, hirugarren kanporaketan parte hartuko du, Amezketako Zazpitturri taldearen aurka, martxoaren 16an. Kanporaketa hau ziurrenik Altzan jokatuko dute (joan den asteburuan bezala), Her-

nanin jokatzea bazen ere, bertako pilotalekua lanetan baitago.

Sei izan ziren Altzan jokatu zuten Aurrerako pilotariak: Jon Jaunarena eta Joseba Iraola kadeteetan, Aritz Sagastibeltza eta Alejandro Nubla gazteetan eta Aimar Lansalot eta Mikel Iriarte, nagusietan.

Patxi Sagastibeltzak, Aurrera taldeko arduradunetako batek, azaldu duenez, «tentsio handiko norgehiagokak izan ziren. Gainera, Berria egunkarian Belete taldea faborito bezala azaltzen zen». Lehenengo norgehiagoka, kadeteena, 22-10 emaitzarekin amaitu bazen ere (Aurreraren alde), bai pilotariak bai bertara hurbildu zirenek ere izerdi ederrak bota zituzten. «Aise irabaziko genuela uste genuen eta partida hasieran 2-9 galtzen hasi ginen... Gero, ordea, buelta eman genion». Gazteen mailan, Aritz Sagastibeltzak eta Alejandro Nublak 18 tantorekin galdu zuten. Azkeneko partida nagusien mailakoa izan zen eta Aurrerakoek 15 tantorekin galdu zuten. «Txapelketaren arauak direla eta, guk 15 tanto behar genituen aurrera jarraitzeko, baina hasieran 15-3 gindoa zen, galtzen, sinistu ezinik. Azkenean erreakzionatu zuten, eta partida galdu arren, behar genituen 15 puntuak atera genituen».

## Fitxaketa

Berria Txapelketan parte-hartzaileak puntuen arabera sailkatzen dira. Horrexegatik, Aurrerak 3 partidetatik 2 galdu arren, aurkariak baino puntu bat gehiago lortu zuenez (55), sailkatu egin da. Arau hauekin jarraituz, Sagastibeltzak azaldu duen bezala, «6 pilotarietatik 2 fitxaketa egiteko aukera ematen dizu lehiaketak. Guk Alejandro Nubla eta Joseba Iraola fitxatu ditugu».

Jon Jaunarena pilotaria, txapelketa honetan parte hartzeaz gain, joan den asteburuan Arabako X. Irekian izan zen, zorte gutxiagorekin, 22-19 galdu baitzuen.

LEITZA ▶

## Satur Eleta lehiaketaren kanporaketa, bihar goizean

Aralar Musika Eskolak antolatutako bigarren aldiz, eta 81 ikaslek parte hartuko dute

NAIARA GARZIA

Satur Eleta II. Musika Lehiaketaren kanporaketa egingen dute bihar goizean. Aurten 81 ikaslek parte hartuko dute eta 62 obra aurkeztuko dituzte.

Aralar Musika Eskolaren egoitza Lekunberrin egon arren, inguruko hainbat herririk eskola honen bitartez herrian bertan musika ikasketak aukera izaten dute. Horrela, Araitz-Betelu, Basaburua, Goizueta, Leitza, Larraun eta Ultzama bailarak musika eskola bera dute, eta arrazoi honengatik, bailara hauek denek parte hartuko dute Satur Eleta II. Musika Lehiaketan.

Lehiaketaren arauen arabera, kanporaketa leku batean izan ordez, aipatutako bailara guztietan egingen dute, aldi berean. Honela, Leitza hogeitamaika izanen dira parte hartuko dituzten ikasleak, Araitz-Betelun hamabi, Basaburuan bost, Larraun-Lekunberrin hamasei, Ultzama beste hainbeste eta Goizuetan, bakarra. Parte-hartzaile guztietatik gasteenak 8 urte dituzte eta zaharrenek, berriz, 24. Musika eskolako tresna guztiek ino ahalko dute eta aurkeztuko dituzten lanak kategoriaz sailkatu egiten dira: bakarlariak, bikoteak, hirukoteak eta laukoteak. Maila hauen barruan ere maila ezberdinen arabera parte hartuko dute, adina arabera. Finala martxoaren 31an izanen da, Lekunberrin.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## HILBERRIAK URTEURRENENK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPIZKOAN  
120.000 IRAKURLE

ESKELAK  
19:00ak arte hartzen dira  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info  
Tel.: 943 65 56 95

## hilberriak ▶



## Pedro Nogales Tamayo

Jauna

2007ko Martxoaren 1ean hil zen



Bere ezkon ama: Benita Huici (Francisco Azurmendiren alarguna); Kontxi - Joxemari, Rikardo - Garbiñe, Tomaxi - Bittor, Gema - (Joxe Inaxioren alarguna), Axun - Juan, Joxan - Bixi, Joakin - Arantxa, Ixa - Jesus; ilobak eta gainerako ahaideak.  
Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela, GAUR OSTIRALA arratsaldeko SEIRETAN ibarrako SAN BARTOLOME parroki elizan, gorputza bertan dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Argindegi 14 - 3º-Ezk

IBARRAN, 2007ko martxoaren 2a

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Amezketeta.** Talai-dantzariak iaz eta aurtun bildu duten diruarekin zer egin erabakitzeko 20:00etan bilera izango da gazte taldeko lokalean (frontoi berrian). Iazko eta aurtengo talai-dantzariak egin zaie deialdia.

**Amezketeta.** Alkartasuna Biltokia k urteko batzarra egingo du 18:00etan bere egoitzan: kontuak, zuzendaritza berritzea, 2007rako asmoak, barra zerbitzurako boluntarioak, galderak...

**Tolosa.** Amaro azoak Nikaraguaren alde antolatzen duen merkatu txikirako laguntza eskatzen da. Liburuak, arropa, jostailuak, diskoak, e.a. eramán daitezke aste honetan Amaro azo Elkartera (jatebaxaren gainean) 18:00etatik 20:00etara.

**Tolosa.** Ados teatroak *El vendedor del tiempo* antzerki musikala eskainiko du Leidor aretoan 20:00etan.

**Tolosa.** Izate Faltsua eta Apiculor musika taldeen kontzertua izango da Bonberenean 22:30ean.

**ERAKUSKETAK**

**Tolosa.** *Elpuentea* pinturak eta eskulturak bihar arte daude ikusgai, Aranburun.

**ZINEMA**

**Leitza.** 22:30ean, *Maria Antonieta* filma, zinen.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
 Irurtzun. Gastearena, M. Amaia kalea, 4. 112.  
 Tolosa. Ollarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

**IRRATIA**

**Txolarre irrátia (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotza* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotza* (errepikapena).  
 20:00-21:00. *Asteko onena*.  
 21:00-22:00. *Igo bolumena*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Herriko plaza jendez lepo bete zen arratsalde partean. N. GARZIA



Artista gazteek ederki egin zuten euren lana. N. GARZIA

# Musikaz blai

**LEITZA ▶ 'Egin kantu' programa grabatzeko ETB1eko saio arrakastatsua**  
 Leitza izan zen atzo, gaztetxoek gozamenerako



Nerea Alias anoetarrak aurkezten duen saioak ikusmin handia piztu zuen herrian. N. GARZIA

**NAIARA GARZIA**

**E**gin kantu' programa grabatzen izan ziren atzo arratsaldean Leitza plaza. Grabaketa 17:00etan hasi bazen ere, eguerdi partean dagoeneko gaztetxoek bertan ibili ziren, ordu batzuk beranduago telebistako plato antzeko zerbituetan bihurtuko zen txoko hura ikusteko. 17:00etarako jende asko hurbildu zen bertara, umeak, hauen gurasoak eta baita herriar ugari ere, jakinminak bultzatuta edo, herriko plaza telebistako plato batean bihurtzea ez baita egunero gertatzen.

Lau orduz herriko gaztetxoek musikaz eta dantzaz gozatzeko aukera izan zuten, ausarrenek abesle moduan eta gaitzerekoek behean, begi luzekin lagunei animoak emanaz. Honela, abeslari gazte haurtzat aurreko egunetako urduritasunak amaitu dira, eta baita ispilu aurrean entseguekin emandako ordu luzeak ere.

**AGURRAK ▶**

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa